MIKEL KEREXETA KORTABARRIA (1. guztira 1)
Gizarte Ekintzako Arduraduna
Sinaduraren data: 30/12/2024
HASH: d6b5f91e6689980322c9ba36e96ab3fc6

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN BERDINTASUN-ZERBITZUAREN LIZITAZIORAKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen ahalduntzea, autonomia eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko, egiturazko desberdintasuna eta sexuagatiko diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne. Horren guztiaren azken helburua da berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzea, non pertsona guztiak libre izango diren, bai eremu publikoan bai pribatuan, beren gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, rol tradizionalek generoaren arabera ezarritako mugarik gabe, eta non berdin kontuan hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeen eta gizonen portaera, jomuga eta beharrizan desberdinak.

Berdintasunerako Legea EAEko administrazio publiko guztiei aplikatuko zaie, eta 7.1 artikuluan udalen eginkizunak ezartzen dira.

Amorebieta-Etxanoko udaleko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako zerbitzua zeharkakoa da, eta egitura eta aurrekontu propioak

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁ EL PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA LICITACIÓN DEL SERVICIO DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO.

El Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres tiene por objeto establecer los principios generales que han de presidir la actuación de los poderes públicos en materia de igualdad de mujeres y hombres, así como regular un conjunto de medidas dirigidas a promover y garantizar la igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida y, en particular, a promover el empoderamiento de las mujeres, su autonomía y el fortalecimiento de su posición social, económica y política al objeto de eliminar la desigualdad estructural y todas las formas de discriminación por razón de sexo, incluida la violencia machista contra las mujeres. Todo ello con el fin último de lograr una sociedad igualitaria y libre de violencia machista en la que todas las personas sean libres, tanto en el ámbito público como en el privado, para desarrollar sus capacidades personales y tomar decisiones sin las limitaciones impuestas por los roles tradicionales en función del género, y en la que se tengan en cuenta, valoren y potencien por igual las distintas conductas, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres.

La ley de Igualdad es de aplicación a todas las administraciones públicas vascas y en el artículo 7.1 establece las funciones para los ayuntamientos.

El servicio de Igualdad de mujeres y hombres del Ayuntamiento de Amorebieta Etxano es trasversal, y cuenta con una estructura y presupuesto propios. Pero de

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 10

ditu. Baina antolaketa administratiboari eta funtzionalari begira, Herritartasunaren arloan kokatzen da, zehazki, Gizarte-ekintza Komunitarioko sailaren Esku-hartze Komunitarioko unitatean. Gainera, ulertzen da genero-berdintasuna Esku-hartze Komunitarioko unitatea eraikitzeko giltzarrietako bat izan behar dela, feminismoak eta haren defentzaren zentralismoa aitortuta.

cara a la organización administrativa y funcional se ubica en el del área de Ciudadanía, más concretamente en la unidad de Intervención Comunitaria del departamento de Acción Social comunitaria. Además, se entiende que la igualdad de género debe constituirse como una de las piezas clave en la construcción de la unidad Intervención Comunitaria, con reconocimiento de los feminismos y de la centralidad de su defensa.

Sailean baliabide propiorik ez dagoenez, kanpoko bitartekoak kontratatu behar dira baldintza-agiri hauetan definitzen den berdintasun-zerbitzua egoki emateko. Zerbitzu horretan sartzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako zerbitzua.

La no disponibilidad de medios propios en el departamento, hacen necesaria la contratación de medios externos para la adecuada prestación del servicio de Igualdad que se define en los presentes pliegos, donde se incorporan el servicio de Igualdad de mujeres y hombres.

1.- AGIRIAREN XEDEA

Amorebieta-Etxanoko Udalaren berdintasun-zerbitzua emateko behar den laguntza teknikoa da lizitazio honen xedea.

1.-OBJETO DEL PLIEGO

Constituye el objeto de la presente licitación la asistencia técnica necesaria para la realización de la prestación del servicio Igualdad del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

2.- HARTZAILEAK

Biztanleria osoa, oro har, eta emakumeen kolektiboa, bereziki, Berdintasun Zerbitzuko (aurrerantzean, Berdintasun Zerbitzua) laguntza teknikoko zerbitzuaren hartzaileak dira.

2.-PERSONAS DESTINATARIAS

Toda la población en general y el colectivo de las mujeres en particular son las personas destinatarias del servicio de asistencia técnica del servicio de Igualdad (en adelante servicio de Igualdad).

3.- DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

Berdintasun-zerbitzuaren erakunde esleipendunari dagokio Amorebieta-Etxanoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren edukia planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, Zornotzako herritarrei arreta ematea berdintasunaren arloan.

Plan hori 4 ardatzen, 8 programaren eta 31 neurriren bidez garatuko da.

3.- DEFINICIÓN Y OBJETIVOS

A la entidad adjudicataria del servicio de Igualdad le corresponde la planificación, el desarrollo y la evaluación del contenido del IV Plan de Igualdad entre mujeres y hombres de Amorebieta-Etxano, atender a la ciudadanía zornotzarra en materia de Igualdad.

El desarrollo de dicho Plan se llevará a cabo a través de 4 ejes, 8 programas y 31 medidas.

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 10

Ardatzak	Programak
1.- Gobernu Ona	1- Zeharkakotasuna 2.- Herritarren eragina
2.- Ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziala	3.- Ahalduntzea 4.- Emakumeen espazioa haien aniztasunean
3.- Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko.	5.- Zaintzak eta erantzukidetasuna 6.- Enplegua, prekarietatearen feminizazioaren aurrean
4.- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak	7.- Sentsibilizazioa eta prebentzioa 8.- Detekzioa, arreta integrala eta erreparazioa

Ejes	Programas
1.- Buen Gobierno	1- Trasversalidad 2.- Incidencia ciudadana
2.- Empoderamiento individual, colectivo y social	3.- Empoderamiento 4.- Espacio de las mujeres en su diversidad
3.- Trasformar las economías y la organización social para garantizar derechos	5.- Cuidados y corresponsabilidad 6.- Empleo, frente a la feminización de la precariedad
4.- Vidas libres de violencia machista	7.- Sensibilización y prevención 8.- Detección, atención integral y reparación

Helburuak:

- Amorebieta-Etxanoko berdintasun zerbitzuaren prestazioa bermatzea.
- Amorebieta-Etxanoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ezarri, garatu eta ebaluatzea.
- Herritarrei arreta, informazioa eta aholkularitza ematea berdintasunaren arloan.

Helburu espezifikoak:

- Urteko plan operatiboen prestaketa eta jarraipena koordinatzea, inplikatutako beste arlo eta zerbitzu batzuekin lankidetzan, arloei beharrezko aholkularitza emanez.
- Elkarrizketa arina Amorebieta-Etxanoko Berdintasun Kontseiluarekin eta emakumeen mugimenduarekin eta mugimendu feministarekin.
- Amorebieta-Etxanoko Udalaren

Objetivos:

- Garantizar la prestación del servicio de Igualdad del Amorebieta-Etxano.
- Implementar, desarrollar y evaluar el Plan de Igualdad de mujeres y hombre de Amorebieta-Etxano.

- Atender, informar y asesorar a la ciudadanía en materia de igualdad.

Objetivos específicos:

- Coordinar la elaboración y seguimiento de los planes operativos anuales, en colaboración con otras áreas y servicios implicados, prestando el asesoramiento necesario a las áreas.
- Interlocución fluida con el Consejo de Igualdad y con el movimiento de mujeres y feminista de Amorebieta-Etxano.
- Impulsar la incorporación de la perspectiva de género en todas las

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 10

politika, programa, partaidetza-prozesu eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea.	políticas, programas, procesos de participación y acciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.
• Ekintza positiboko neurri espezifikoak diseinatzea eta bultzatzea.	• Diseñar e impulsar medidas específicas de acción positiva.
• Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko programak, zerbitzu espezifikoak, programak eta baliabideak sortzeko eta/edo egokitzeko proposamenak egitea.	• Elaborar propuestas para la creación y/o adecuación de programas, servicios específicos, programas y recursos tendentes a garantizar la Igualdad real y efectiva de mujeres y hombres.
• Egon daitezkeen diskriminazio-egoerak identifikatzea eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.	• Identificar las posibles situaciones de discriminación existentes y diseñar e impulsar medidas para su erradicación.
• Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak diseinatzea, bai Udalari atxikitako langileentzat, bai herritarrentzat.	• Diseñar acciones de sensibilización y formación en materia de Igualdad de mujeres y hombres dirigidas tanto al personal adscrito al Ayuntamiento como a la propia ciudadanía.
• Emakumeen ahalduntzea sustatzeko espazioak eta prozesuak bultzatzea.	• Impulsar espacios y procesos para fomentar el empoderamiento de las mujeres.
• Amorebieta-Etxanoko IV. Berdintasun Planeako ekintzak ezartzea.	• Implementar las medidas del IV Plan de Igualdad de Amorebieta-Etxano.
• Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen badute.	• Establecer relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que, en razón de sus fines o funciones, contribuyan a la consecución de la Igualdad de mujeres y hombres.
• Amorebieta-Etxanoko IV. Berdintasun Planaren aldaketak eta azken ebaluazioa koordinatzea.	• Coordinar las posibles modificaciones y evaluación final del IV Plan de Igualdad de Amorebieta-Etxano.
• Berdintasunaren arloko dirulaguntzen eskarietan laguntzea eta bultzatzea.	• Impulsar y asistir en la solicitud de subvenciones en materia de Igualdad.
• Jardueraren urteko memoriak egitea eta aurkeztea.	• Elaborar y presentar memorias anuales de la actividad.
• Sexu-hezkuntzako aholkularitza programa berrikusi eta koordinatzea, aholkularitza-	• Revisar y coordinar el programa de asesoramiento sexual, ampliando el servicio de asesoramiento a

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 10

zerbitzua adin-tarte guztietara zabalduz.

- Udaleko Esku-hartze Komunitarioaren eremuko ekintzak antolatzen eta kudeatzen parte hartzea.
- Udal-arau bat egin aurretik, genero-eraginari eta genero-ikuspegiari buruzko aholkuak ematea.

- Gainera, bere gaitasunaren eta lanbide-sailkapenaren arabera, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion lanak egitea.

todas las franjas de edad.

- Participar en la organización y gestión de acciones en el ámbito de Intervención Comunitaria municipal.
- Asesorar sobre el impacto en función de género y el enfoque de genero de forma previa a la elaboración de una norma municipal.
- Realizar, además, las tareas que, de acuerdo con su capacidad y su clasificación profesional, se le encomienden de cara a la consecución de los objetivos establecidos.

4.- ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

Berdintasun Zerbitzuak genero-ikuspegia txertatu beharko du, eta ekintza oro Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako printzipio orokorren arabera bideratuko da.

Berdintasun-zerbitzua emateko, Amorebieta-Etxanoko Udalak espazio fisiko egokia eta beharrezkoa esleituko du udal-bulegoetan: bulegoa, bilera-gela, ekintzak garatzeko espazioak... Interneterako konexioaren, garbiketaren, mantentze-lanen eta zerbitzua ematetik eratorritako hornidura-gastuen kontura izango da.

Erakunde esleipendunak zerbitzua emateko behar den ekipamendu informatikoa eta telefonia mugikorrekoa (ordenagailuak, inprimagailuak, smartphonea...) eta erakunde esleipendunaren helbide elektroniko korporatibo bat eman beharko dizkio zerbitzuari atxikitako pertsona bakoitzari,

4.-CONDICIONES DE PRESTACION DEL SERVICIO

El Servicio de Igualdad deberá incorporar la perspectiva de género y toda acción estará orientada por los principios generales establecidos en el artículo 3 del Decreto Legislativo 1/2023 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

Para la prestación del servicio de Igualdad el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano asignará el espacio físico adecuado y necesario en las dependencias municipales: despacho, sala de reuniones, espacios para el desarrollo de acciones…y correrá a cargo de la conexión a internet, limpieza, mantenimiento y los gastos de suministro derivados de la prestación del servicio.

La entidad adjudicataria deberá proveer el equipamiento informático y de telefonía móvil necesario para la prestación del servicio (ordenadores, impresoras, smartphone…) y una dirección de correo electrónico corporativa de la entidad adjudicataria a cada persona adscrita a la prestación del servicio que así lo

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 10

hala eskatzen badu.

Berdintasun Zerbitzua egun baliodunetan emango da lanaldi osoan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara. Programen jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, erakunde esleipendunak zerbitzua goizez eta arratsaldez ematen dela bermatu beharko du, une bakoitzean dauden beharrizanei egokituta. Egun jakinetan, noizean behin, zerbitzua asteburuetan edo jaiegunetan ere emango da.

Erakunde esleipendunak urtero egutegi bat aurkeztuko du. Egutegi horretan zerbitzuaren ordutegiak eta egin beharreko ekintza guztien kronograma ezarriko dira, eta udalak onartu beharko du.

Euskara

Erakunde esleipenduna hizkuntza-eskubideak babesteaz eta euskararen erabilera sustatzeaz arduratuko da. Zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan ematen dela bermatu beharko du, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren barruan. Horretarako, zerbitzuaren hizkuntza erabiltzaileek/parte-hartzaileek aukeratzen dutena izango da, betiere euskararen erabilera sustatuz.

Horregatik, ahozko zein idatzizko komunikazioetan honako jarraibide hauei jarraitzea aurreikusten da:

- Harrera-hizkuntza euskara izango da, eta erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da.
- Zerbitzu hori emateko erabilitako idatzizko elementu guztiak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, azalpenak, publizitatea...) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez,

requiera.

El servicio de Igualdad se prestará en una jornada completa en días hábiles de lunes a viernes entre las 8:00 horas y las 20:00 horas. Dadas las características de la actividad y de los programas, la entidad adjudicataria deberá garantizar la prestación del servicio en horario de mañana y tarde adaptándose a las necesidades existentes en cada momento. En fechas señaladas, de manera ocasional, se prestará el servicio en fin de semana e incluso en festivo.

La entidad adjudicataria presentará un calendario anualmente donde se establezcan los horarios del servicio y el cronograma de todas acciones a realizar, que deberá ser aceptado por el Ayuntamiento.

Euskara

La entidad adjudicataria velará por la protección de los derechos lingüísticos y promoción del uso del euskera. Deberá garantizar la prestación del servicio en los dos idiomas oficiales de la CAPV y dentro del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. A tal fin, el idioma de servicio será aquel que las personas usuarias/participantes elijan, impulsando siempre el uso del euskera.

Por ello, se prevé seguir las siguientes pautas tanto en las comunicaciones orales como escritas:

- La lengua de acogida será el euskera y se seguirá en la lengua elegida por la persona usuaria.

- Todos los elementos escritos utilizados para la prestación de este servicio (impresos, notificaciones, notas, señales, rótulos, explicaciones, publicidad...) se redactarán en las dos lenguas oficiales, dando

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 10

Euskara Sustatzeko Ekintza Planean euskararen azentuazio-neurriekin bat etorriz.

- Komunikazio guztiak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz egingo dira hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

prioridad al euskera, de acuerdo con las medidas de acentuación del euskera definidas en el Plan de Acción para la promoción del Euskara.

- Todas las comunicaciones, tanto escritas como orales, se realizarán en euskera cuando las características de las personas destinatarias así lo permitan.

5.- BERDINTASUN ZERBITZUAREN PROIEKTU TEKNIKOA

Erakunde lizitatzaileak proiektu tekniko bat aurkeztu beharko du, baldintza teknikoen agiri honetan ezarritakoaren arabera. Proiektu horretan, gutxienez, alderdi hauek jasoko dira:

- Kontratuaren xedearekin zerikusia duen udalerriaren errealitatea aztertzea.
- Berdintasun-zerbitzuaren kudeaketa-eredua. Plegu honen eta IV. Berdintasun Planaren edukia garatzea.
- Ekintza- eta garapen-programa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak definitu eta garatzea (sexu-aholkularitzako programa barne).
- Profesionalen lana kudeatzea eta antolatzea.
- Zerbitzuaren kalitatearen jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza egiteko prozedura.
- Informazio-, komunikazio-, koordinazio- eta jarraipen-sistemak.
- Berrikuntza teknologikoa eta soziala.

5.- PROYECTO TECNICO DEL SERVICIO DE IGUALDAD

La entidad licitadora deberá presentar un proyecto técnico conforme a lo establecido en este Pliego de Condiciones Técnicas, en el que se recojan, al menos, los siguientes aspectos:

- Análisis de la realidad del municipio relacionado con el objeto del contrato.
- Modelo de gestión del servicio de Igualdad. Desarrollo del contenido del presente pliego y del IV Plan de Igualdad.
- Programa de acciones y desarrollo: Definición y desarrollo de acciones en materia de igualdad de mujeres y hombres (incluido el programa de asesoramiento sexual.
- Gestión y organización del trabajo de la o las profesionales.
- Procedimiento de seguimiento, evaluación y mejora de la calidad del servicio.
- Sistemas de información, comunicación, coordinación y seguimiento.
- Innovación tecnológica y social.

6.- ROFESIONAL TALDEA

Berdintasun-zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileen zuzendaritza eta funtzionamendua erakunde esleipendunaren eskumen esklusiboa

6.- EQUIPO PROFESIONAL

La dirección y funcionamiento del personal adscrito a la prestación del servicio de Igualdad es competencia exclusiva de la entidad adjudicataria. Por

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 10

da. Horregatik, zerbitzua emateko zuzenean izendatutako profesionalez gain, koordinatzaile bat izendatu beharko du. Zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak betetzen dituen profesionalaren eta Gizarte Ekintzako udal-arduradunaren arteko harreman arina bermatu beharko da.

ello, además de la/s profesional/es asignada/as directamente a la prestación del servicio deberá nombrar un/a coordinadora. Se deberá garantizar una relación fluida entre la profesional que desempeñe las funciones de dirección y gestión y el responsable municipal de Acción Social.

Erakunde esleipendunak baliabide material eta langile egokiak eduki beharko ditu, kopuruari eta lanbide-kualifikazioari dagokienez, kontratatutako zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko, eta indarrean dagoen eta une bakoitzean aplikatzekoa den legerian eta araudian ezarritako baldintza materialak eta funtzionalak bete beharko ditu.

La entidad adjudicataria estará obligada a disponer de medios materiales y del personal adecuado, en número y en cualificación profesional, para garantizar la adecuada prestación de los servicios contratados, quedando obligada a cumplir los requisitos materiales y funcionales establecidos en la legislación y normativa vigente y de aplicación en cada momento.

Berdintasun-zerbitzua emateko, erakunde esleipendunak gutxienez profesional bat esleituko du lanaldi osoan, bai eta ekintza-programa garatzeko behar diren profesionalak ere.

Para la prestación del servicio de Igualdad la entidad adjudicataria procederá a la adscripción de, al menos, una profesional a jornada completa y las profesionales necesarias para el desarrollo del programa de acciones.

Koordinatzaile profesionalak eta zerbitzua emateko izendatutako profesionalek lizentziatura edo unibertsitate-gradua izan behar dute, bai eta Berdintasuneko master edo graduondokoa ere.

El/la profesional coordinadora y las profesionales asignadas a la prestación del servicio deben poseer licenciatura o grado universitario y un master o postgrado en Igualdad.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren barruan, kontratu honi esleitutako profesionalek Euskararen C1 egiaztagiria izan beharko dute.

Dentro del Marco Común Europeo de Referencias para las Lenguas, las y los profesionales asignadas a este contrato deberán contar con la acreditación C1 de Euskara.

Erakunde esleipendunak ezin izango du langile berririk kontratatu, ezta zerbitzuari atxikitako langileen lanaldia luzatu ere, Amorebieta-Etxanoko Udalak aldez aurretik baimendu ezean. Baldintza hori betetzen ez bada, falta larritzat joko da, eta erakunde esleipendunak profesional horiek hartu beharko ditu langile propio gisa. Horrek

La entidad adjudicataria no podrá contratar nuevo personal ni ampliar la jornada laboral del personal adscrito al servicio, sin que previamente se autorice por el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. El incumplimiento de esta condición se considerará una falta grave y determinará que la entidad adjudicataria deba asumir como personal propio a tales

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 10

ez du esan nahi, ordea, udalari kosturik ordaindu behar ez dionik, ez eta administrazio-klausulen agiriaren arabera legozkiokeen zigorrik ordaindu behar ez dionik ere.

profesionales, sin perjuicio de la responsabilidad de indemnizar al ayuntamiento de los costes que pudiera suponerle, ni de las penalidades a que pudiera haber lugar de acuerdo con el pliego de cláusulas administrativas.

Edozein gorabeheraren (aldi baterako edo behin betiko bajak, ordezkapenak) egonkortasuna eta estaldura bermatu behar da, gehienez ere, baja-egunetik zenbatzen hasita, 48 orduko epean ezusteko gorabeheren kasuan, eta 24 orduko epean aurreikusitako gorabeheren kasuan (kontratu-deuseztapena, baimenak...).

Se debe garantizar la estabilidad y la cobertura de cualquier incidencia (bajas temporales o definitivas, sustituciones) en un plazo máximo, a partir de la fecha de baja, de 48 horas en el caso de incidencias imprevistas y de 24 horas en el caso de incidencias previstas (rescisión de contrato, permisos…).

Berdintasun-zerbitzua emateko, beharrezkoa da profesionalak etengabe trebatzea eta gaitzea. Horregatik, urtarrilero, kontratuak dirauen bitartean, erakunde esleipendunak prestakuntza-plan bat aurkeztuko du.

La prestación del servicio de Igualdad requiere de una formación y capacitación continua de las profesionales. Por ello, en enero de cada año de vigencia del contrato la entidad adjudicataria presentará un Plan de Formación.

Erakunde esleipendunak proposatutako taldeko kide berri guztien curriculum xehatua aurkeztu beharko du zerbitzuan sartu aurretik.

La entidad adjudicataria deberá presentar un currículum detallado de cada una de las nuevas integrantes del equipo propuesto con anterioridad a su incorporación al servicio.

7.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa urtean 61.200 eurokoa izango da (% 10eko BEZik gabe). Berdintasun-zerbitzua emateari datxezkion era guztietako gastuak barne hartzen ditu, baita aplika daitezkeen zerga, tributu eta tasa guztiak ere.

7.-PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato, será de 61.200.- € anuales (10 % IVA no incluido). Incluye todo tipo de gastos inherentes a la prestación del servicio de Igualdad y cuantos impuestos, tributos y tasas fueran aplicables.

8.- ENPRESA-SUBROGAZIOKO KLAUSULA

Erakunde esleipenduna berdintasun-zerbitzuari atxikitzen zaion pertsonarekiko betebeharretan eta erantzukizunetan subrogatzea aurreikusten da, indarreko legeria eta hitzarmen kolektiboa betez.

8.- CLAUSULA DE SUBROGACION EMPRESARIAL

Se prevé la subrogación de la entidad adjudicataria en las obligaciones y responsabilidades respecto a la persona que se adscribe al servicio de Igualdad, dando cumplimiento a la legislación y al convenio colectivo laboral vigente.

Baldintza-agiri honen I. eranskinean

En el anexo I a este pliego se recoge la

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 10

jasotzen da berdintasun-zerbitzuari atxikitako pertsonari buruzko informazioa.

información correspondiente a la persona adscrita al servicio de Igualdad.

I Eranskina: SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA (24-7-24)
Anexo I: RELACION NOMINAL DEL PERSONAL A SUBROGAR

Langilea Empleado/a	Postua Puesto	Talde Grupo	Antzinetasuna Antigüedad	Kontratoa Tipo contrato	Lanaldia % Jornada	Urteko gordina Total bruto anual
CO, M.	Berdintasun teknikaria Técnica de Igualdad	1.A	02/10/2017	Mugagabea Indefinido	100%	31.482,08

Hitzarmena: Bizkaiko Gizarte Eskuhartze VI. Hitzarmena. Convenio: VI Convenio Intervención Social de Bizkaia.

2. Eranskina: URTEKO AURREKONTUAREN BANAKETA
Anexo 2: PRESUPUESTO DESGLOSADO ANUAL

Kontzeptua /Concepto		**Zenbatekoa /Importe**
Zuzeneko Kostuak Costes directos	**Pertsonal GASTUAK /** GASTOS Personal*	**53.958,74**
Zeharkako kostuak / Coste indirectos **(%7)**		**3.777,11**
Etekin industriala / Beneficio industrial **(%6)**		**3.464,15**
Totala / Total		**61.200,00**
BEZ / IVA **(%10)**		**6.120,00**
Urteko lizitazio totala / Total presupuesto licitación anual		**67.320,00**

Baliozkotze Kod.: AEMFZN9SS6MKKAQWQMMPTFGD4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 10